

DIRULAGUNTZAK EMATEKO ERREGIMENA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA ONARTZEKO  
ESPEDIENTEA

**Dirulaguntzak emateko erregimena arautzen duen ordenantza onartzeko espedientea hastea erabakitzen duen probidentzia**

Ikusirik Alkatetza honek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan aurreikusitako erregulazio onaren printzipioekin bat (beharra, eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia), beharrezkotzat jotzen duela Udal Dirulaguntzak emateko erregimena arautzea.

Horretarako, beharrezkotzat jotzen du Udal Dirulaguntzak emateko erregimena arautzen duen Ordenantza aztertu, landu eta ondoren onartzea, indarrean dagoen araudiaren arabera toki-erakundeei dagokien erregelamenduak egiteko eta beren burua antolatzeko ahala baliatuz, eta, bereziki, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17. artikuluan xedatutakoa betez.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua, bestalde, ordenantza-proiektua egin aurretik, toki-erakundearen web-atariaren bidez kontsulta publikoa egitera behartzen du, etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuen eta erakunde adierazgarrienen iritzia jasotzeko.

Ikusirik, gainera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, eta aldeztu aurretik egin beharreko kontsultari kalterik egin gabe, onartu nahi den ordenantzak pertsonen eskubide eta interes legitimoak eragiten dienez, ordenantza-proiektuaren testua udalaren web orrian argitaratu behar dela, ukitutako erakundeei entzunaldia emateko eta herritar horiek egin ditzaketen ekarpenak jasotzeko.

Era berean, zuzenean eskatu ahal izango zaie iritzia legeak onartutako antolakunde edo elkartei, baldin eta arauak ukitzen dituen eskubide edo interes legitimoak dituzten pertsonak biltzen edo ordezkatzeko badituzte eta haien helburuek zuzeneko lotura badute arauaren xedearekin.

Horregatik guztiagatik,

**EBAZTEN DUT**

**Lehenengo.**- Udal Dirulaguntzen Erregimena arautzen duen Ordenantza Orokorra onartzeko espedienteari hasiera ematea.

**Bigarrena.**- Aurretiatzko kontsulta publikoa Segurako Udalaren web atariaren eta iragarki-taularen bidez egitea, etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuen eta erakunde adierazgarrienen iritzia jasotzeko.

**Hirugarrena.**- Dagokion Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren proiektua egitea.

**Laugarrena.**- Udal Idazkari-Kontu-hartzaileak ordenantza onartzeko beharrezkoak diren txosten juridiko eta ekonomikoak burutzea.

**Bosgarrena.**- Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren proiektuaren testua web orrian argitaratzea, eragindako herritarrei entzunaldia emateko eta beste pertsona edo erakunde batzuek egin ditzaketen ekarpen gehigarriak jasotzeko.

**Seigarrena.**- Espedientea izapidetu ondoren, organo eskudunari aurkeztea, onar dezan.

Seguran, 2022ko urtarrilaren 10ean.

ALKATEAK

Izp. Izarra Urdalleta Iraola